

*Urte berrirako herritarren nahi  
eta beharretara egokitutako  
aurrekontuak*

*Unos presupuestos ajustados a la realidad y a  
las necesidades de la población para el 2017*

## mun~~t~~tar 06

lezo EGUNEZ-EGUN

- *Gutuna*
- *Laburrean:*  
Eguberrietako argiztapen berria
- *Aurrera eramandako ekintzak*
- *Aurrekontuak 2017*

lezo GERTUTIK

- *Elkarrizketa:*  
**UNAI BENEDITED** Jarduera Fisikoa  
eta Kirolaren Orientazio Zerbitzua

lezoarren IRITZIA

- *Kale inkesta*  
Gabonak Lezon
- *Alderdi politikoak*





## Gozatu Gabonak etxean nahiz kalean! *Drisfrutemos de las fiestas en Lezo*

Jesus Mari Martiarena | Lezoko alkatea

Iritsi zaizkigu urteko azken egunak. Atzera begiratu eta egindako lanaz hausnartzeko garaia izaten da, aurrera begira egin nahi ditugunak ere oso presente izanik, noski. Onartu berri ditugu datorren urterako aurrekontua eta horixe izango da gure datorren urteko ibilbide orria.

Lehentasunak ezarriak ditugu beraz eta argi dugu zer egin nahi dugun. Pertsonak izan ditugu eta izango ditugu aurrerantzean ere ardatz, gure udal jardunak pertsonak dituelako oinarri eta helburu. Martxan jarritako ekimenak herritarrengan pentsatz burutu ditugu eta datozen berrikuntzak ere ildo beretik etorriko dira.

Eguberrietako argiztapenak ere badu bere esanahi eta helburua, ez ditugu gure bazterrak arrazoirk gabe jai giroan murgildu. Noski ezetz. Iza daitezela gure kaleak jai giroaren islada, elkargunerako parada eta elkarbanatzeko espazio, eta baita erosketetarako gune ere. Norberaren ardura ere badelako tokian tokiko saltokietan erotea bertakoa babesteko eta bultzatzeko. Goza dezagun beraz, etxean bezala, kalean ere!

Gabon zoriontsuak opa dizkizuet guztioi. Ondo bukatu eta hobeto hasi datorren urtea.

Estamos a pocos días de despedir el 2016 y dar la bienvenida al nuevo año. Suelen ser las fechas idóneas para echar la vista atrás y hacer un balance sobre el trabajo realizado, sin olvidar aquel que queremos realizar de cara al futuro. Hemos aprobado los presupuestos municipales para el 2017 y esta será nuestra hoja de ruta para el próximo año.

Por lo tanto, ya hemos establecido nuestras prioridades y tenemos claro lo que queremos hacer. Las personas han sido y serán nuestro principal eje de trabajo, porque son el objetivo y la base fundamental de nuestra labor municipal. Todas las actuaciones llevadas a cabo las hemos desarrollado pensando en la población lezoarra yharemos lo mismo con los proyectos futuros.

La iluminación navideña también tiene su significado y su propio objetivo. No hemos adornado nuestro pueblo en vano; claro que no. Queremos que nuestras calles sean el reflejo del ambiente festivo, queremos que sean un punto de encuentro, un espacio para compartir y por supuesto un lugar donde comprar. Porque también es nuestra responsabilidad aportar nuestro granito de arena al comercio local para protegerlo e impulsarlo. Disfrutemos de estos días, tal y como lo hacemos en casa, también en nuestras calles.

Os deseo felices fiestas a todos y todas.

Esperamos que terminéis bien y empecéis aún mejor el año.

## LEZO GUZTIA GABON GIROAZ JANTZITA EGUBERRIETAKO ARGIZTAPEN BERRIAREKIN



Gabonak ate-joka, egun berezi horiek iragartzen dituzten argi-apaiigarriak jada piztu dira Lezon.

Gabonak girotzeko asmoz, aurten udalerri osora eraman nahi izan ditu argiak Udalak, herriaren luze-zabalean jai giroa pizte asmoz.

Herriko hainbat elementu apaindu dira: zuhaitzak, farolak... eta guztira, 12.000€ko euroko kostua izan du.

### Helburu bikoitza

Herriko giroa alaitzea batetik, herritarrek kalera ateratzea eta tokiko merkataritzan kontsumitzera gonbidatzea, bestetik. Herriko merkataritzarentzat egun berezi eta garrantzitsuak izaten dira, horregatik, Udalak, kaleak argiztatuz herritarrei bertako saltokietan


kontsumitzeko deia ere luzatu nahi izan die. Izan ere, saltokiek ematen diete kaleei bizia eta zalantzarak gabe, merkataritza eta ostalaritzarik gabe gure kaleak ez lirateke berdinak izango. Har dezagun, beraz, tokiko saltoki eta tabernetan kontsumitzeko konpromisoa, gure kaleek egun duten bizia mantentzaten.

*"Este año el Ayuntamiento ha decidido colocar luces de navidad en todo el municipio con un doble objetivo, animar a la población con el ambiente festivo e invitar a la ciudadanía a consumir en el comercio local. Nuestro comercio local necesita del apoyo y compromiso de todas y todos, ya que los comercios y la hostelería son la garantía de unas calles con ambiente y vida"*

## REFORMA INTEGRAL DE AITON BORDA

El 1 de octubre el hogar del jubilado Aiton Borda volvió a abrir sus puertas tras una reforma integral. Se han mejorado las instalaciones y se han creado nuevos espacios más abiertos y accesibles con el objeto de mejorar el bienestar, la comodidad y la accesibilidad de las personas usuarias, además de dar respuestas a sus necesidades.

Aiton Bordak berriz ere bere atea zabaldu zituen urrian, erabiltzaileen erosotasuna eta irisgarritasuna bermatze aldera egindako berrikuntza lanak amaitu ondoren.



## UDAZKEN KULTURALA, KULTUR PROGRAMAZIO BATERATUA

Kulturaren aldeko apustuan, Kultur egitarauari eta ekitaldieei indarra emateko, Udal Liburutegiak, Musika Eskolak eta Kultur Sailak antolatzen dituzten jarduera guztiak programa berean kokatu ditu Udalak. Aurrerantzean beraz, hiru hilean behin aurkeztuko da kultur egitarau bateratua, izen propioarekin gainera, garaian garaiko urtaroi lotuta.

Haur, gazte eta helduen gustuak asebetetzeko helburuarekin garatuko dira egitarauak, etxeiko txikienei arreta berezia emanez haurren ohituretan kultur jarduera ikuskizunak txertatzea lortzeko.



Con el objeto de dar un nuevo impulso a la cultura en Lezo, se ha realizado un programa trimestral unificado de las tres áreas, Cultura, Biblioteca y Escuela de Música. Se presentará la programación de cada estación, tratando siempre de incluir una oferta rica y variada que pueda satisfacer a las y los lezoarras.

## PLAN DE ACCESIBILIDAD VERTICAL PARA HACER DE LEZO UN MUNICIPIO MÁS CÓMODO

En septiembre quedó aprobado el Plan de accesibilidad vertical que posibilita la instalación de ascensores en Lezo el próximo año. Ello ha permitido al Ayuntamiento poder pedir ayudas al Gobierno Vasco para la instalación del primero de los ascensores.

La mejora de la accesibilidad vertical tiene como objeto mejorar la movilidad de las personas y siguiendo con el compromiso y deseo de hacer de Lezo un municipio más amable, cómodo, seguro y accesible,

también se han cubierto varias aceras con antideslizante para evitar caídas los días de lluvia.



Lezoarren irisgarritasuna bermatzeko, Udalak irisgarritasun plana onartu zuen irailean eta horren baitan diru laguntzak eskatu dira Eusko Jaurlaritzan, igogailuen bidez Lezoarrak mugitzeko eragozpenik izan ez dezaten.

### MUITTUREZO ESTRATEGIA, BIZITZA AKTIBOAGO ETA OSASUNTSUAGO BATEN ALDE

Muittulezo, Lezoko herritarrak bizitza aktiboago eta osasuntsuagoa izan dezaten bultzatu nahi duen estrategia da. Estrategia honen baitan daude kokatuak azken bi urtetan martxan jarritako eta datozen urteetan martxan jarriko diren ekintza guztiak, hala nola, erorketak saihesteko tайлerrak, Tipi-Topa



edota Jarduera fisikoaren eta kirolaren orientazio zerbitzu berria.

Estrategia hau aurrera eramateko Udalak sarean egiten du Ian Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarekin eta Osakidetzarekin.

La estrategi Muittulezo, que engloba acciones como el taller para evitar caídas, las salidas Tipi-Topa o el servicio de orientación para la actividad física, busca fomentar hábitos saludables entre la ciudadanía de lezo.

### LEZO, UN MUNICIPIO CARDIOPROTEGIDO



A los tres desfibriladores colocados en las instalaciones deportivas se ha sumado un nuevo desfibrilador portátil al coche de la policía local. Ello permite a los agentes actuar de manera inmediata en caso de emergencia cardíaca convirtiendo Lezo en un espacio cardioprotegido, ya que además de contar con los aparatos necesarios, cuenta con personas adecuadamente formadas para garantizar una respuesta rápida.

Lehendik kirol instalakuntzetan zeuden 3 desfibriladoreei beste bat gehitu zaie. Udalzaingoak bere autoan gailu berria du larrialdi egoeretan erantzun azkarragoa eman ahal izateko.

# AURREKONTUAK 2017

Datorren urtean Lezok 8.400.000€ Ko aurrekontua izango du, iaz baino %5 gehiago.

Aurrekontu hori era jasangarri eta eraginkorrean kudeatzea izango da Udalaren egiteko. Pertsonen beharrei erantzutea, ekonomia eta enplegua sustatzea eta herri atseginago eta irisgarriagoa egitea dira helburu nagusiak.

## Finantzen egonkortasuna

Lezok aurrekontu egonkor eta orekatuak ditu, diru-sarrerei eta gastuei dagokienean. Gainera, udalaren zorrak behera egin du eta horrek, 2016 urtearekiko, 34.000 euroko aurrezpena ekarri du.

Lezo cuenta con un 5% más de presupuesto para el 2017, concretamente un presupuesto total de 8.400.000€.

El principal objetivo es gestionar e invertir de forma sostenible y eficiente para mejorar los servicios que se prestan a la ciudadanía. Siendo las personas el eje central de la labor municipal, responder a las necesidades de la población y promover la economía y el empleo será lo prioritario.

## Finanzas equilibradas

Lezo cuenta con unos presupuestos equilibrados y consolidados. Además, la deuda municipal ha descendido, generando un ahorro respecto al 2016 de 34.000 euros.

## SARRERAK-GASTUAK / INGRESOS Y GASTOS

### sarrerak / ingresos

Zuzeneko zergak <i>Impuestos directos</i>	2.558.500 €	%30.45
Zeharkako zergak <i>Impuestos indirectos</i>	100.000 €	%1.19
Tasak eta bestelako zergak <i>Tasas y otros ingresos</i>	1.399.800 €	%16.66
Transferentzia arruntak <i>Transferencias corrientes</i>	4.046.700 €	%48.17
Ondare sarrerak <i>Ingresos Patrimoniales</i>	36.000 €	%0.42
Kapital transferentziak <i>Trasferencias de capital</i>	247.000 €	%2.94
Finantza aktiboak <i>Activos financieros</i>	12.000 €	%0.14

### sarrerak / gastos

Pertsonal Gasteak <i>Gastos de personal</i>	2.765.000 €	%32.91
Gastuak Ondasun arruntak <i>Gastos en Bienes corrientes</i>	2.912.020 €	%34.66
Finantza gasteak <i>Gastos financieros</i>	31.000 €	%0.36
Transferentzia arruntak <i>Transferencias corrientes</i>	1.329.975 €	%15.83
Kreditu Globala eta besteak <i>Crédito global y otros</i>	100.000 €	%1.19
Inbertsio erreala <i>Inversiones reales</i>	785.005 €	%9.34
Finantza aktiboak <i>Activos Financieros</i>	12.000 €	%0.14
Finantza pasiboak <i>Pasivos financieros</i>	465.000 €	%5.53



Zertan gastatuko da dirua? ¿En qué se va a gastar el dinero?

## PROMOCIÓN ECONÓMICA

- Plan de empleo con la Agencia de Desarrollo de Oarsoaldea
- Plan para la promoción del pequeño comercio
- Plan de empleo local para labores de jardinería

## Bienestar Social

- Se mantienen los programas y las prestaciones sociales, como las ayudas de emergencia social, el servicio de atención domiciliaria o el programa de intervención familiar, con el compromiso de aumentar las partidas en caso de ser necesario
- Desarrollo del Plan de Igualdad
- Acciones para impulsar el envejecimiento activo
- Ayudas al alquiler para jóvenes menores de 35

## URBANISMO, SERVICIOS Y MOVILIDAD

- Instalación de ascensores para mejorar la accesibilidad vertical: polideportivo, Altamira, Ijurko, Escuela de Música e Instituto
- Eliminación de barreras arquitectónicas
- Mejora en los caminos y recorridos peatonales para hacerlos más seguros, amables y accesibles
- Pasos de cebra en relieve para mejorar la seguridad de los viandantes
- Mejora del acceso al polideportivo mediante un nuevo paso peatonal
- Mejora de las infraestructuras de la Escuela de Música y la Herri Escola, cubriendo el patio e aislando el mismo para poder hacer uso de las instalaciones fuera del horario escolar.
- Mejoras en el local de la brigada
- Mantenimiento y mejora del mobiliario urbano: renovación de la red de alcantarillado y mejoras en el alumbrado público
- Limpieza viaria
- Recogida de basuras

## KULTURA

- Hiru hileko Kultur programazioa: kontzertuak, hitzaldiak...
- Haurren jarduerak: ipuin-kontalariak, antzerkiak, ikus-entzunezko emanaldiak...
- Herriko elkartea eta taldeei babesa hitzarmenen bitartez
- Ludoteka zerbitzua, udalekuak eta aisiaaldi jarduerak
- Liburutegiko eta Musika eskolako jarduerak
- Herriko jaiak

## EUSKARA

- Euskararen erabilera sustatzeko ekimenak Oarsoaldeko Garapen Agentziarekin elkarlanean: Kuadrillategi...
- Udal Euskaltegi zerbitzua
- Ahozkotasunaren sustapenerako programa

## KIROLA

- Eskola Kirola
- Ibilbide osasungarriak
- Muittulezo estrategia
- Tipi-topa
- Kirol orientazio zerbitzua
- Adineko pertsonen kalean kirola praktika dezaten makinak
- Kirol instalazioen hobekuntza: igerilekua, futbol zelaia, kiroldegia...

## INGURUMENA

- Baratze parkea
- Auzokonposta-guneak
- Agenda 21
- Kale argiztapenean energia aurrezteko LED sistema
- Zaraten mapa

## HERRITARREN PARTE HARTZEA

- Bilerak auzoka bertako bizilagunekin
- Parte-hartze prozesuak

## JARDUERA FISIKOA SUSTATZEKO KIROL ORIENTAZIO GUNE BERRIA



*"Dentro de la estrategia Muiitulezo, el Ayuntamiento ha puesto en marcha un servicio gratuito de orientación de actividad física y deporte dirigido a personas que no practican deporte. Se hará un seguimiento exhaustivo de cada caso y se elaborará un plan de deporte ajustado a las necesidades y gustos de cada persona"*

Unai Benedited, orientazio zerbitzuaren arduradunari elkarrizketa

### Harrera ona izan al du zerbitzuak?

Baietz esango nuke. Horrelako zerbitzu bat eskaintzeko beharra zegoen. Gainera aholkularitza zerbitzua iragarri eta berehala jaso genituen mezu baikorrak: "ez dago halako zerbitzurik, bazeñ garaia" edota "jende asko joango dela uste dut". Horregatik, espero dut currerantzean jendea gerturatzea eta zerbitzuaz gozatzera animatzea.

### Zenbat pertsona gerturatu dira bulegora atea zabaldu zituenetik?

Oraingoz bi pertsona dauzkagu gurekin. Ez dira gutxi interesa izan dutenak, informazio gehigarria eskatu digutenak, etab., baina pare batek bakarrik eman dute zerbitzuan sartzeko azkeneko pausu hori. Ez da erraza horrelako zerbitzu berri eta "ezezagun" batera hurbiltzea, are gehiago sortu berria denean, beraz, ea ahoz ahokoarekin pixkanaka jendartean ezagutzen ematen garen eta denborarekin jende gehiago animatzen den. Ez dute ezer galtzeko, guztia irabazteko baizik!

### Zein esango zenuke dela orientazio zerbitzu berriaren helburu eta balio erantsirik nagusiena?

Helburua, laburki esanda, Lezoko herritarrak aktiboagoak izatea da. Bizi estilo sedentarioak gutxitzea, bakoitzak izan ditzakeen lesio edota patologiei konponbideak eman eta hauen prebentzioan lan egitea, kirolak izan dezakeen funtzio soziala aprobatxatzea, etabar. Azken finean, jarduera fisikoaren bidez Lezoarren ongizate fisiko, sozial eta mentalaren lorpenean laguntzea da gure xedea, haien bizi kalitatea hobetzeko.

Balore erantsiez dagokienez, bat baino gehiago aipatu beharrean nago. Alde batetik, zerbitzua dohainik izatea izugarrizkoa iruditzen zait. Udalak esfortzu garrantzitsua egin du hau horrela izan dadin, eta eskertzekoada. Bestalde, zerbitzua personalizatua da. Pertsona bakoitzari egokitutako programa garatzen da, haren motibazio eta gogoak areagotzeo. Azkenik, erabiltzaileei jarraipen zehatza egiten diegu. Bakarka zein gurekin egiten dituzten saioen jarraipena egiten dugu. Horrela, pertsona bakoitzak duen garapen eta hobekuntzak aztertu eta plangintza egokitzten dugu. Gainera, Osakidetzarekin etengabeko elkarlanean



Jarduera Fisikoa eta Kirolaren Orientazio Zerbitzua, jarduera fisikorik egiten ez duten herritarrei zuzenduriko doako zerbitzua da.

Muittulezo estrategiaren baitan abian jarritako zerbitzu berria da hau. Osasun zentrotik, gizarte zerbitzuetatik edo ikastetxeetatik bideratuko dituzte herritarrok bertara, baina interesa duen edonor bere kabuz joan daiteke bulegora.

Osasun-zentroan jarduera fisikoa egiteko gomendioa errezetatzen dute eta erreza horrekin doa herritarra orientazio zerbitzura.

Bulegoan, aldiz, deribatutako edo bertaratutako pertsonen fitxa egiten da, eta haien beharren, patologien eta gustuen araberako jarduera fisikoa agintzen da. Norbanakoari jarraipen personalizatua egiten zaio eta osasun-zerbitzuekin etengabeko harremanetan egoten da bulegoko teknikaria.

arituko gara, programa kontrolpean egon dadin eta ahalik eta erabaki onenak hartu ditzagun.

### **Herritarrek ezagutzen al dute zerbitzu honen funtsa zein den eta baldakite zein etekin atera diezaioketen doako zerbitzu honi?**

Oraindik ez dute oso argi zertan dantzan. Zerbitzu eta kontzeptu berria da eta horrek, ziurgabetasuna sortzen du. Horregatik, zerbitzua ezagutzera emateko jarduera ezberdinak egingo ditugu, hala nola, osasun zentroan dauden herritarrei informazioa banatuko diegu, zerbitzua ezagutu dezaten eta parte-hartzera anima daitezen.

### **Nola laguntzen diozu bertara doan pertsonari?**


Aiton Bordako bulegora etortzen den pertsonari fitxa bat sortzen diogu, non bere datu pertsonalak, historial klinikoa, gustuak, disponibilitatea, etabar. zehazten ditugun. Era berean, test simple batzuk egiten dizkiogu, bere baldintza fisikoak zeintzuk diren jakiteko. Hori guztia jakinik, berari egokitutako jarduera fisikoa preskribitzen diogu, adostutako helburuak lortzeko. Hortik aurrera, jarraipena egiten diogu pertsonari.

Era berean, Lezok eta eskualdeak eskaientzen dituen baliabideak erabiltzen ditugu zerbitzua aurrera eramateko (kiroldegia, igerileku...) eta ariketa fisikoa aire librean egiteko aukera ere aztertzen dugu, eguraldiak uzten digunean, noski.

### **Oraindik zerbitzua ezagutzen ez duen edota hurbiltzekotan dagoen pertsonari zer esango zenioke?**

Eman diezaiola aukera bat jarduera fisikoari, honek onura handiak izan ditzakeelako haien osasunean eta egunerokotasunean. Aukera ezberdinak eta baliabide berriak jarriko ditugu zure esku eta ez dugu inor ezer egitera behartuko. Gainera dohainik da, ez dute ezer galduko, anima zaitezte!

**“Helburua Lezoko herritarak aktiboagoak izatea da. Kirolak duen funtzio sozialaz baliatuz, bizi estilo sendentarioak gutxitzea da asmoa, jarduera fisikoaren bidez herritarren ongizate fisiko, sozial eta mentala hobetzeko”**



Lezo gabon giroan murgilduta dago jada argi-apaiigarriekin eta gainera, egitarau oparoa antolatu du Udalak datozen egunetarako. Kalera atera gara herritarren iritzia ezagutzeko.

Zer iruditzen zaizkigu aurtengo argi-apaiigarriak eta Gabonetako programazioa?



## AINHOA BRAVO

Urtero antolatzen dituzte ekintzak eta erabat ados nago eguberrieta egitarauarekin. Gabonetako argien kontuarekin aldi, ez nago ados. Diru gehiegi xahutzen dela iruditzen zait. Adibidez, Pirritx eta Porrotxen sarrerak joan den urtean 5 euro balio zituen, aurten berri, 8. Hiru euro horiek ez dakit argietara edota nora bideratu diren, baina aukeran, nik nahiagoko nuke argi gutxiago izan eta sarrerak merkeagoak izatea.



## XABI EZKURDIA

Egia esan Gabonetako argiek giroa sustatzen dute herrian. Egutegiari dagokionean ere, Gezala Auditoriumean ekintza ugari eta politak daude. Hau jarduerei buruzko informazioa dut nik gehien, Pirritx eta Porrotxen saioa ere badago eta hori ikustera joango gara. Badaude, beraz, gauzak eta ondo daude antolatutako ekintzak. Dena beraz, oso ondo.



## HAIZEA UGALDE

Ondo iruditzen zait argi-apaiigarriak jarri izana. Jada argiak jarriak daude eta nahiko argi daudela ere iruditzen zait. Gabonetako egitaraua ere jaso dugu etxearen, ikusi dugu zer dagoen eta aprobetxatuko dugu, antzerkira joango naiz eta etxeako txikiiek Pirritx eta Porrotx ikustera ere joango gara. Beraz, oso ondo iruditzen zait.

Santo Tomasak ere ospatuko ditugu eta beraz, ahal den neurrian, antolatutako ekintzetan parte hartuko dugu.

## BEGOÑA GOLDARAZENA

Oso ondo iruditzen zait argiak nola jarri dituzten. Berriak dira, asko jarri dituzte eta herriari giroa ematen diote. Askotan gustatzen zaizkit, bai guretzako eta baita haurrentzako ere, haurrek oso gustuko izaten baitituzte Gabonetako argiak. Plaza oso polita dago eta kaleak ere oso politak daude.

Egitarauari dagokionez, antolatutako ekintzetan parte hartuko dugu. Gezalan egiten dituzten zine emanaldietan parte hartzen dugu, antzerkia ikustera ere joango gara eta haurrekin Pirritx eta Porrotxen emanaldira ere joango gara, urtero joaten garen moduan.



*Trabajar y hacerlo para la población, en función de sus necesidades y las del municipio, es nuestro principal cometido día a día. Hacer de Lezo un municipio más accesible y cómodo, adecuado a las necesidades de las personas, garantizando unos servicios de calidad, es nuestra prioridad. Y todo ello gestionando los recursos municipales de forma sostenible y eficiente.*

*Nuestra hoja de ruta para el 2017 está definida por los presupuestos recientemente aprobados, en los que hemos intentado lograr el mayor consenso introduciendo propuestas de todos los grupos de la oposición. Ese mismo consenso no ha sido posible en relación al sistema de recogida, pero seguiremos trabajando para lograr implantar el 5º contenedor en 2017.*

*"Pertsonak dira gure jardunaren ardatza eta beren nahi eta beharrei erantzutea da gure lehentasuna. Zaborren inguruko urretanako tira-bira honi amaiera eman nahi diogu, gure arreta garrantzikoak diren beste gaietan jarri ahal izateko"*



Begi-bistakoa da hondakinen arazoa ez dugula oraindik ere konpondu eta zentzu horretan ez diogu gure ardurari uko egin nahi. Aitorru beharra dugu atez-ateko sistema jartzeko moduan ez genuela asmatu eta garbi dugu ezin dugula berriro ere akats berdina egin.

Alderdi ezberdinek oinarri eta printzipio batzuen inguruuan adostasuna lortzea garrantzitsua iruditzen zaigu erabaki beharreko bilketa sistemaren nondik norakoak finkatu ditzagun.

Birziklatze maila altua lortzea da helburua eta sistemak hori lortzeko tresna izan behar du. Gaur egun Lezo %85 inguruko birziklatze mailan dago eta arduragabekeria litzake zifra horretatik behera egitea.

Ados dezagun %80 inguruko birziklatze maila, herritarrok diseina ditzagun helburu hori lortuko duten sistema ezberdinak eta erabaki dezagun galdeketak baten bitartez zein sistema nahiago dugun.

Zinez uste dugu horrela soilik lor daitekeela orain arteko liskarrak gainditzea, eta sistema eraginkor bat izateaz gain, iraunkorra izatea; herritarren babesia izango bailuke.



*En 2017 el quinto contenedor se implantara en las calles de Lezo. El PSE-EE en su programa electoral apostaba por este sistema de recogida de basuras por su comodidad y menor coste y gracias a nuestro decisivo voto esto será posible. Nos hubiera gustado que el cambio se hiciese antes pero la apuesta del PNV en 2016 por el sistema mixto no lo ha hecho viable. El acuerdo entre las diferentes fuerzas políticas no ha sido posible, ni siquiera en la realización de una consulta vinculante, lo cual quedará siempre en el debe de unos y de otros. El PSE-EE se siente muy orgulloso del trabajo realizado para los lezoarras en este año que termina y del apoyo que tanto PNV como EH Bildu han dado a nuestras iniciativas. Así, en los presupuestos 2017 hemos incrementado el plan de empleo, incorporado las ayudas al alquiler para jóvenes y obteniendo el compromiso de actuaciones urbanísticas en varios barrios, además de conseguir que se ejecute el ascensor a Altamira y dar solución a la rotonda del mismo barrio.*

# NEGU KULTURALA

## URTARRILA ENERO

**5** Pirritx eta Porrotx  
haur jardunaldia  
*actividad infantil*

**15** Koadernu Zuria  
antzerkia *teatro*

**20** Ganbara haur  
jardunaldia  
*actividad niños*

**21** Kantujira

**29** Amarga Dulce  
antzerkia | dantza  
teatro | danza



**31** Literatur solasaldia:  
*La delicadeza*  
*charla literaria*

## Gabon zoriontsuak eta Urte Berri On

Felices fiestas  
y próspero **2017**



Lezoko Unibertsitateko Udalak



@LezokoUdala



@LezoUdala

## OTSAILA FEBRERO

**4** Santa Ageda  
*kalejiran*

**10** Kolorez kolore  
haur jarduera  
*actividad infantil*

**11** Bertso saioa

**16** Piano audizioa

**18** Kantujira

**22** Literatur solasaldia:  
*Ezer ez charla*  
*literaria*

**23-28** Inauteriak

Carnavales



**26** Putinen Guardasola  
antzerkia *teatro*

## MARTXOA MARZO

**3** Baserria Amets  
haur jarduera  
*actividad infantil*

**5** Javier Muguruza,  
kontzertua *concierto*



**17** Boli Bili Boli  
haur jarduera  
*actividad infantil*  
Literatur solasaldia:  
*El último encuentro*  
*charla literaria*

**18** Kantujira

**19** Barro Rojo  
Antzerkia *teatro*

**24-31** Lesoinu

## ABENDUAK 17

**12:30** GABONETAKO KONTZERTUA  
Tomas Garbizu Musika Eskolako  
Bandaren eskutik, Gezala  
Auditoriumean.

**18:00** KANTUJIRA.  
herriko kaleaten zehar

## ABENDUAK 18

**11:00** SAN TOMAS egunaren  
ospakizuna.  
Karlos Saldise plazan.

**20:00** ANTZERKIA, "Amodoaren ziegia".  
Gezala Auditoriumean.

## ABENDUAK 22-24

**10:00** EUSKAL LIBURU ETA DISKA  
AZOKA.  
Kultur Aretoan

10:00-13:00 | 17:00-20:00



Gure aplikazioarekin Lezoko  
informazio guztia zure esku!

Descargate la app para estar al día

